



Ararteko erakundeak **6 eta 16 urte bitarteko adin txikikoentzat egin den hezkuntza-tresna baten aurkezpenera** gonbidatzen zaituzte, atseginez, interesa duzuen hezkuntza arloko langile guztiak: hezkuntza-eremu formaletako irakasleak, baita gazteen kultur zentroetako arduradunak ere. **Tresna horren bitartez, haurtzarotik eta nerabezarotik landu nahi da sexu-joerako eta genero identitateko aniztasuna erabat onartu eta errespetatzea.**

Hezkuntza-tresna hori Europako **Rainbow**¹ proiektuan 2011 eta 2012. urteetan hainbat erakunde europarrek egindako lanaren emaitza da. Eskoletako sistemen artean eta eduki didaktikoetan kultura desberdintasunak daudela jakinda ere, Italiako, Bulgariako, Euskadiko, Alemaniako, Belgikako, Herbehereetako eta Erresuma Batuko zenbait erakundek elkarrekin lan egitea erabaki dute, helburu komun hau lortzeko: azterlan bat egitea, eskoletan estereotipo eta aurreiritzi homofobiko eta transfobikorik badagoen antzemateko eta, hala bada, horiek indargabetzeko. Horretarako, haur eta gazteek ulertzen eta gozatzen duten baliabide bat erabili dute: zinema, hain zuzen.

Rainbow hitzak ingelesez **ortzadarra** esan nahi du eta, akronimo gisa, bat dator esapide honen ingelesezko laburdurarekin: **"Intolerantziaren kontrako eskubideak, aurreiritzirik gabeko mundua sortzen"**. Proiektu honen bidez, haur eta gazteei sexuaz dituzten jarrerak ulertzen lagundu nahi diegu, beste pertsona batzuen askatasun afektibo eta sexualarekiko sentikor bihurtu nahi ditugu, eta sexu-joera eta genero identitatea -ikasgelan nahiz kanpoko munduan- guztiz errespetatu ditzaten hezi.

Aurkeztu nahi dugun tresna (9 film labur dituen **DVD bat eta, horrekin batera, filmei buruzko gida didaktiko bat, film bakoitzeko hainbat ariketa proposatzen dituen**) erabilgarria da bai hezkuntza-eremu formaletan (ikastetxe eta institutuetan), bai eremu ez formaletan (gaztetxeak, elkarte-etxeak, kultur etxeak, e.a.) eta 6 eta 16 urte bitarteko adin txikikoentzat da eta adin-tarte ezberdinetarako berriazko materiala dauka.

Arartekoaren ustez, funtsezkoa da eskola- eta elkarte-eremuetako haur eta gazteekin lan egitea, **txiki-txikitatik** eraikiz sexu-joerako eta genero identitateko

¹ Europar Batasunak finantzatua, Europako Batzordearen Justiziako Zuzendaritza Nagusiaren *Oinarrizko eskubideak eta Herritarrek* izeneko programaren barruan (2011-12 deialdia)

aniztasuna erabat onartzearen aldeko heziketa. Ildo horretan, **errealitate horretaz jabetzeko heziketa garatzeari haurtzarotik erabakitasunez heltzeak** honako helburuok ditu:

- Laguntza eta konpainia eman nahi zaizkie sexu-joera edo genero identitate ezberdina izateak gaur egun, oraindik ere, berekin dakartzan bazterkeria edo gizarteratzeko zailtasunak pairatzen ari daitezkeen haurrei, nerabeei eta gazteei.
- Errespetu, berdintasun eta askatasun balioetan oinarritutako heziketa eman nahi zaie, behin betiko gainditu daitezzen aniztasun afektibo eta sexualarekiko nahiz genero-rol eta genero-identitateak zalantzan jartzearekiko aurreiritziak, txiki-txikitatik hasita eta ondorengo belaunaldietan.
- Eskola toki segurua izan dadin lortu nahi da, adin txikikoek eta nerabeeek, aniztasun betean, garapen pertsonal zoriotsu eta erabatekoa izango dutela bermatzeko.


Horregatik guztiagatik, helburu horiek ardura bazaizkizue, aurkezpen-saioetan parte hartzera animatzen zaituztegu. Saioak jende guztiarentzat irekiak izango dira, honako egunetan eta tokietan:

Tresna pedagogikoaren aurkezpenak (film laburrak dituen DVDa + gida didaktikoa, ariketa batzuekin):

	TOKIA	HELBIDEA	EGUNA	ORDUA
BILBAO	La Bolsa gizarte-etxea	Pilota 10 (Yohn eraikina)	2013-01-28	18:00etatik 19:30era
VITORIA-GASTEIZ	Montehermoso kultur etxea	Frai Zacarias Martinez 2	2013-02-04	18:00etatik 19:30era
DONOSTIA- SAN SEBASTIÁN	Koldo Mitxelena Kulturunea	Urdaneta 9	2013-02-11	18:00etatik 19:30era

Halaber, aurkezpen-saio guztietan toki bat gordeko dugu, parte-hartzaileek gaiok elkarrekin eztabaidatu eta hausnar ditzaten.

Agur bero bat.



Iñigo Lamarca Iturbe
Arartekoa

Vitoria-Gasteiz, 2013ko urtarrilaren 22a